



DATUEN BABESA JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAN ONLINE IKASTAROKO DEIALDIA

Justizia Administrazioako Zuzendaritzak Datuen babesa Justizia Administrazioan ikastaroa eskaintzen du, on-line modalitatean

Baldintzak:

- 1 Ikastaroa, bereziki, Euskadiko Justizia Administrazioako karrerako eta bitarteko funtzionarioentzako zuzenduta dago, onartutakoen eta baztertutakoen behin behineko zerrenda argitaratzen duen Ebazpenaren datan jardunean daudenentzako; eta aurreko lau urteetan ez dute ikastaroa osatu. 300 plaza. **Ez du lan-poltsetarako balio.**
- 2 AUTOMATRIKULA: Epea **apirilaren 7an** irekiko da eta **apirilaren 21an** itxiko da goizeko 09:00etan.

- [Datuen babesa justizia administrazioan online izen ematea](#)

Modu honen bidez aurkeztutako eskabideak bakarrik hartuko dira kontuan.

- 3 Apirilaren 30ean, posta elektronikoko bat bidaliko zaie ikastaroan onartutako pertsonei, ikastaroan sartzeko jarraibideak emanez. **GARRANTZITSUA: Posta elektronikoko erretilu guztietan begiratzea gomendatzen da, Spam-ena barne.**
- 4 IKASTAROA: **Apirilaren 30ean** hasiko da, **14:00etan**, eta **maiatzaren 14an** amaituko da, **goizeko 09:00etan**. Epe horretan ikasleak online sar daitezke ikastarora.
- 5 Ikastaroa moduluz osatuta dago. Modulu bakoitza amaitzeko, autoebaluazio-test bat egin behar da. Test horri esker, ikasleak zenbat aurreratu duen jakingo du, eta modulua behar beste errepikatzeko aukera izango du, modulua behar den moduan ulertu eta ikasi arte.
- 6 Egitaraua:
 - ✓ 1.gaia: Oinarrizko kontzeptuak
 - ✓ 2.gaia: Datuen babesa Justiziako Administrazioan
 - ✓ 3.gaia: Datu pertsonalen erabileraren alderdi praktikoa.
 - ✓ Ohiko galderak
- 7 Azterketa egiteko eskubidea izateko, ikasleak **ikastaroko test guztiak egin beharko ditu.**
- 8 AZTERKETA: Ikastaroa amaitua, **maiatzaren 15ean, 14:00etan**, irekiko da azterketa online egiteko epea, eta **maiatzaren 22an** itxiko da, **goizeko 09:00etan**.
1. Azterketaren epea amaituta, gainditu dutenek diploma jasoko dute **"Nire karpeta" - Euskadiko Sare Elektronikoa- atalean.**